

LAN-MERKATUAREN BALANTZEA

EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOA



Lehenengo Hiruhilekoa 2018

Erakunde autonomiaduna

Organismo Autónomo del

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

ENPLEGU ETA GIZARTE
POLITIKETAKO SAILA

DEPARTAMENTO DE EMPLEO
Y POLÍTICAS SOCIALES

 Lanbide

Txosten honek, 2018ko lehenengo hiruhilekoan, Euskal Autonomia Erkidegoan lan-merkatuak izandako joera aztertzen du, aldagai nagusien analisiaren bitartez. Horretarako, lan-merkatuari zuzenki lotutako aldagaiez gain (erregistratutako langabezia, afiliazioa Gizarte Segurantzaren eta kontratuen erregistroa), lan merkatuaren arloan biztanleria neur-tzera bideratuta dauden estatistika operazio nagusiak hartu dira kontuan (Euskal Estatistika Erakundearen “Biztanleria Jardueraren Arabera sailkatzeko inkesta”, BJA).

Edukia


Testuinguru Ekonomikoa	4
Lanbiden erregistratutako langabezia	5
Afiliazioa Gizarte Segurantzaren	6
Kontratutako pertsonak eta kontratuak.....	7
Okupazioa eta Langabezia, Biztanleria Jardueraren Arabera sailkatzeko inkestaren arabera (BJA).....	8

Testuinguru Ekonomikoa

2018ko lehenengo hiruhilekoan, Euskal Autonomia Erkidegoko (EAE) Barne Produktu Gordinak (BPG) urte arteko %3,1eko hazkundera izan du, eta 2018 urte osoari dagokionez, urte arteko %2,6ko hazkundera aurreikusten da

Eustat-en arabera, 2018ko lehenengo hiruhilekoan **EAEko BPGak** urte arteko %3,1eko hazkundera izan du, aurreko hiruhileko bietan baino hamarren bat puntu gehiago erregistratuz.

Euskal Autonomia Erkidegoko ekonomiak hazkunde erritmo biziari eutsi dio 2018ko lehen hiruhilekoan, oraindik ez da moteltzeko zantzurik hautematen EA-Eko BPGaren bilakaeran. Hala, industriak nola zerbitzuen multzoak bi hamarrenetan hobetu dute hazkunde erritmoa 2017ko laugarren hiruhileko emaitzarekin alderatuz. Aitzitik, eraikuntzak lau hamarrenetan galgatu du bere urte arteko gehikuntza, oraindik aipagarria den %2,7an utzi arte.




Iturriak: Eustat, EIN, Eurostat, "Koiuntura DI-DA batean 2018ko ekaina" txostenak

Europako Ekonomiari dagokionez, moteltze arina gauzatu da urteko lehen hiruhilekoan, iazko bigarren sei-hilekoan bizitako hedatze biziaren aldean: urte arteko bariazioa %2,5ekoa izan da (6 hamarren Euskadiko tasaren azpitik), hirugarren hiruhilekoan lortutakoa baino (%2,8) hiru hamarren baxuagoa. Izan ere, aurreko hiruhilekoan lortutako tasa izan da azken bost urteetan lortutako tasarik altuena.

Hiruhileko honetan ere, azpimarratu beharra dago **Espainiako** ekonomiaren bilakaera sendoa. %3 edo hortik gorako hazkunderak erregistratu dira azken hamabi hiruhilekoetan, 2018ko lehenengo hiruhilekoan ere %3ko hazkundera mantenduz (Euskadin baino puntu hamarren bat gutxiago).

Etorkizunerako aurreikuspenen arabera, hazkunde ekonomikoaren moteltze arin bat aurreikusten da. Hurrengo taulan ikus daitekeen bezala, Consensus Forecast-ek Eurogunerako egindako aurreikuspenak %2,3 eta %1,9koak dira 2018 eta 2019 urteerako, hurrenez hurren. Nazioarteko Diru Funtsak (NDF) Espainiarako egindako aurreikuspenak apur bat altuagoak dira: %2,4 2018 urterako eta %2,1 2019 urterako.

Euskadiri dagokionez ere, Ogasun eta Ekonomia Sai-leko Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak egungo dinamismo ekonomikoaren moteltze arin bat aurreikusten du hurrengo urteetarako: %2,6ko tasa 2018 urterako eta %2,2ko tasa 2019 urterako.




Iturriak: Eustat, EIN, Eurostat, Ogasun eta Ekonomia Saila: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritza, NDF, Consensus Forecast, "Koiuntura DI-DA batean 2018ko ekaina" txostenak

Lanbiden erregistratutako langabezia

Lanbiden erregistratutako langabe kopuruak hiruhileko arteko %0,3ko jaitsiera izan du urteko lehenengo hiruhilekoan, sexu arteko desberdintasunak nabarmenak izanik: 1.650 gizon gutxiago eta 1.267 emakume gehiago, aurreko hiruhilekoarekin alderatuta

Aurreko hiruhilekoarekin alderatuta, Lanbideko bulegoetan erregistratutako langabe kopurua jaitsi egin da 2018ko lehenengo hiruhilekoan (383 pertsona gutxiago); guztira erregistratutako langabe kopurua 127.164 pertsonakoa izan da. Hiruhileko arteko jaitsiera %0,3koa izan da eta urte arteko jaitsiera %8,0koa.




Iturria: Azterketa, Azterlan eta Estatistika Zerbitzua. Lanbideko Kabinete Teknikoa

Sexuari dagokionez, Lanbiden erregistratutako gizonen langabetu kopurua murriztu egin da hiruhileko honetan (-1.650), kopurua guztira 55.090 izanik. Emakumezkoen kasuan, erregistratutako langabetuen kopurua 1.267 pertsonatan igo da, kopurua guztira 72.074an kokatuz.

Adinari dagokionez, langabetuen murrizketarik handiena 35-44 urte bitarteko segmentuan gertatu da (800 langabetu gutxiago); ondoren, 25-34 urte bitarteko artean (-262) eta 45-54 adin tartean (-4). 16-24 eta 55-64 urte arteko langabetuen kasuan, langabetu kopurua igo egin da (+416 eta +267, hurrenez hurren).

Lurralde Historikoei dagokionez, Araba eta Gipuzkoa nabarmentzen dira: lehenengo kasuan jaitsiera %1ekoa izan da (-208 langabetu) eta bigarren kasuan jaitsiera %1,9koa izan da (-641 langabetu). Bizkaian, ostera, langabetu kopurua igo egin da: %0,6 langabetu gehiago (+466).

Lanbiden erregistratutako langabetuen hiruhileko arteko eboluzioa, Lurralde Historikoei dagokionez (%; 2018 H1)



Iturria: Azterketa, Azterlan eta Estatistika Zerbitzua. Lanbideko Kabinete Teknikoa

Jatorriari dagokionez, Lanbiden erregistratutako langabetuen kopurua 243 pertsonatan jaitsi da atzeritarren artean eta 140 pertsonatan bertakoen artean. Beheraka %1,2koa izan da lehenengo kasuan eta %0,1ekoa bigarren kasuan.


Ikasketak mailaren arabera, langabezia murrizketa handiena izan dutenak unibertsitate ikasketak dituztenak izan dira (hiruhileko arteko -%1,7); ondoren, Derri-gorrezko ikasketak dituztenak (-0,5%). Lanbide Heziketako ikasketak eta Batxilergoko ikasketak dituztenen artean, langabetu kopurua igo egin da (+%1,1 eta +%0,2, hurrenez hurren)

Jarduera Ekonomikoari dagokionez, hiruhileko honetan langabezia murrizketa handiena izan duten sektoreak hurrengoak izan dira: (i) Jarduerak lurraldez kanpoko erakundeetan (-541); Etxeak, ondasun eta zerbitzuen ekoizle bezala, erabilera propiorako (-276); eta (iii) Etxeetako langileak (-274). Bestalde, azpimarratu beharra dago sektore batzuk izandako igoera: (i) Nekazaritza, abeltzaintza (+483); (ii) Basogintza eta ustiapena (+288); eta (iii) Arrantza eta Akuikultura (+203), besteak beste.

Afiliazioa Gizarte Segurantzaz


Gizarte Segurantzaz afiliatutako pertsona kopurua 940.000 baino altuago mantendu da, aurreko hiruhilekoan baino apur bat baxuago (-%0,1)

EAEn 2018ko lehenengo hiruhilekoan, Gizarte Segurantzaz afiliatutako pertsona kopurua 940.000 baino altuago mantendu da, nahiz eta aurreko hiruhilekoarekin alderatuta apur bat murriztu den (-%0,1; 477 pertsona gutxiago). Aurreko urteko hiruhileko berdinarekin alderatuta, igoera %2,3koa izan da.



Iturria: Enplegu eta Gizarte Segurantzazko Ministerioa

Sexuari dagokionez, afiliatu kopurua egonkor mantendu da azken bost hiruhilekoetan. Hurrengo taulan azaltzen den bezala, afiliatu kopuruaren %53a gizonezkoak dira eta %47a emakumezkoak.



Iturria: Enplegu eta Gizarte Segurantzazko Ministerioa

Lurralde Historikoei dagokienez, afiliazio kopuru handiena Bizkaian izan da (%50). Gipuzkoan, %33koa izan da eta Araban %17koa. Aurreko hiruhilekoarekin alderatuta, Bizkaian eta Araban jaitsi egin da afiliazio kopurua (-941 eta -281 pertsona, hurrenez hurren). Gipuzkoan izan da igoera izan duen Lurralde Historiko bakarra (+746 pertsona).


Jarduera Ekonomikoari dagokionez, lehenengo hiruhilekoan afiliatu gehien izan dituzten sektoreak hurrengoak izan dira: (i) Txikizkako merkataritza, motordun ibilgailuak eta motozikletak izan ezik (%8,9); (ii) Hezikuntza (%7,5); (iii) Elikadura eta edarien zerbitzuak (%6,3); (iv) Osasun jarduerak (%6,1) eta (v) Administrazio Publikoa eta Defentsa, Derrigorrezko Gizarte Segurantzaz (%5,0). Hala ere, lehenengo hiruhileko datuak aurreko hiruhileko datuekin alderatuta, afiliatu gehien galdu dituzten sektoreak hurrengoak izan dira: (i) Txikizkako merkataritza, motordun ibilgailuak eta motozikletak izan ezik (-2.201) eta (ii) Osasun jarduerak (-1.881). Afiliatu gehien irabazi dituzten sektoreak hurrengoak izan dira: (i) Enpleguarekin lotutako jarduerak (+1.401); (ii) Arrantza eta akuikultura (+695); eta (iii) Metalezko produktuen fabrikazioa, makinaria eta ekipamendua izan ezik (+676).

Jatorriari dagokionez, hiruhilekoaren azken hileko batez besteko datuen arabera, Gizarte Segurantzaz batu diren atzerritarren kopurua %2,0an igo da aurreko hiruhilekoarekin alderatuta, kopurua guztira 58.626koa izanik. Afiliatu guztien artean, talde honen pisua %6,2koa da eta afiliatu autoktonoena %93,8koa. Atzerritarren artean, gizonezkoen afiliazioa emakumezkoena baino gehiago hazi da (+%2,9 eta +%0,9 hurrenez hurren). Lurralde Historikoei dagokienez, atzerritarren afiliazioak Gipuzkoan %2,3ko igoera izan du; ondoren Araba eta Bizkaia, biak %1,8ko igoerarekin.

Kontratututako pertsonak eta kontratuak

Lehenengo hiruhilekoan kontraturen bat sinatu duen pertsona kopurua %6,0 jaitsi da eta sinatutako kontratu kopurua guztira 224.530koa izan da

2018ko lehenengo hiruhilekoan EAEn **kontraturen bat sinatu duen pertsona kopurua** guztira 122.893koa izan da, aurreko hiruhilekoan baino %6,0 gutxiago. Jaitsiera handiagoa izan da emakumezkoen artean (-8,2%), gizonetzkoen artean baino (-3,8%).



Iturria: Azterketa, Azterlan eta Estatistika Zerbitzua. Lanbideko Kabinete Teknikoa


Ikasketa-mailaren arabera, kontratatutako pertsonen %43,8k Derrigorrezko ikasketak ditu, %21,5ek Batxilergo ikasketak, %17,7k Unibertsitateko ikasketak eta %16,4k Lanbide Heziketa.

Adinari dagokionez, 2018ko lehenengo hiruhilekoan kontratatutako pertsona kopuruaren artean, 35-44 urte bitarteko pertsona taldea nabarmendu da, %27,4ko pisuarekin. Aurreko hiruhilekoarekin alderatuta, aztertutako talde guztiak izan dute jaitsiera kontratatutako pertsona kopuruari dagokionez, 25 urte baino gutxiagoko taldeak izan ezik (+%2,9). Jaitsiera handiena izan duen taldea 25-34 urte bitartekoa izan da (-%16,2).

Jatorriari dagokionez, kontratatutako pertsonen %85,8a bertakoa da eta %14,2ak atzerriko nazionalitatea du. Atzerritarren artean, nazionalitate nabarmenak hurrengoak dira: latinoamerikarra (%35,4), Europar Batasunekoak eta kanpokoak (%26,2) eta Afrika iparraldekoak (%15,5).

Lehenengo hiruhilekoan **sinatutako kontratu kopuruari dagokionez**, EAEn kokatutako lanpostua duten 224.530 kontratu erregistratu dira (kontratututako

pertsonak baino 1,8 gehiago). Aurreko hiruhilekoarekin alderatuta, zifra honen jaitsiera %10,2koa izan da.



Iturria: Azterketa, Azterlan eta Estatistika Zerbitzua. Lanbideko Kabinete Teknikoa

Lan - kontratu motaren arabera, joera arruntak jarraitzen du: sinatutako kontratuen %9,4a kontratu mugagabeak izan dira (aurreko hiruhilekoan baino 1,7 puntu gehiago) eta %90,6a aldi baterako kontratuak. Sinatutako kontratu guztietatik %39,8a kontratu partzialak izan dira (aurreko hiruhilekoan baino 1,3 puntu gutxiago).

Lurralde Historikoei dagokienez, balore erlatiboetan, Bizkaia izan da jaitsiera handiena izan duen lurraldea kontratazioari dagokionez, aurreko hiruhilekoarekin alderatuta (-%12,4). Ondoren, Araba (-9,5%) eta Gipuzkoa (-6,6%). Hala ere, Bizkaia izan da kontratu kopuru handiena izan duen lurraldea (%51,8; 116.417). Jarraian, Gipuzkoa (%29,5; 66.306) eta Araba (%18,6; 41.807).

Jarduera Ekonomikoei dagokienez, hurrengoak izan dira kontratu kopuru gehien izan dituzten sektoreak: (i) manufaktura industria (%16,4); (ii) ostalaritza (%15,2); (iii) osasun jarduerak eta gizarte zerbitzuak (%12,2); (iv) administrazio jarduerak (%11,4); eta (v) merkataritza (%11,0). Gizonezkoen artean, gehien nabarmentzen den sektorea manufaktura industria da (%25,9) eta emakumezkoen artean osasun jarduerak eta gizarte zerbitzuak (%19,1).

Okupazioa eta Langabezia, Biztanleria Jardueraren Arabera sailkatzeko inkestaren arabera (BJA)

Langabezia tasa %11,3koa izan da eta enplegu tasa %66,4koa

Aztertutako hiruhilekoan, EAeko **enplegu tasa** %66,4koa izan da 16-24 urte bitarteko pertsonen artean (%70,3 gizonezkoen kasuan eta %62,5 emakumezkoen kasuan). Okupatu kopurua guztira 916.900ekoa izan da, aurreko hiruhilekoan baino %0,2 altuagoa. Gizonezkoen kasuan, okupatu kopurua 485.300ekoa izan da (aurreko hiruhilekoan baino %1,1 gehiago) eta 431.600koa emakumezkoen kasuan (aurreko hiruhilekoan baino %0,8 gutxiago).

Adinari dagokionez, enplegu tasa handiena 35-44 urte bitarteko taldeari dagokio (%80,9) 273.300 okupaturekin. Bestalde, enplegu tasa txikiena 16-24 urte bitarteko taldeari dagokio (%18,8) 31.600 okupaturekin. Lehenengo hiruhilekoan eboluziorik onena izan duen taldea 45-54 urte bitartekoa izan da, 9.400 okupatu gehiagorekin (+%6,9).

Lurralde Historikoei dagokienez, Gipuzkoan izan da enplegu tasarik handiena (%68,6), jarraian Araban (%66,4) eta Bizkaian (%65,1). Joerarik onena ere Gipuzkoan izan da lehenengo hiruhilekoan, %0,6 okupatu gehiagorekin.

Jarduera Ekonomikoari dagokionez, Zerbitzuen sektorea izan da okupatu gehien izan dituen (%71,2). Ondoren, Industria sektorea (%22,2), Eraikuntza sektorea (%5,5) eta Lehen sektorea (%1,1).

Kontratu motari dagokionez, soldatapekoen %70,0ek kontratu mugagabeak – finkoak izan dituzte Euskadin eta %30,0ek aldi baterako kontratuak. Aurreko hiruhilekoarekin alderatuta, kontratu mugagabe - finkoen kopurua %0,6 jaitsi da eta aldi baterako kontratuen kopurua %2,8 hazi da. Kontratuen partzialtasunari dagokionez, kontratuen %82,5 lanaldi osokoak izan dira eta %17,1 lanaldi partzialekoak.

Lehenengo hiruhilekoan, EAeko **langabezia tasa** %11,3koa izan da (%10,2 gizonezkoen artean eta %12,5

emakumezkoen artean). Langabetu kopurua 116.500 pertsonakoa izan da, aurreko hiruhilekoan baino %2,3 gehiago. Emakumezkoen kasuan, hazkundera 6.100 pertsonakoa izan da, eta gizonezkoen kasuan, oster, beherakada 3.200 pertsonakoa izan da.

Adinari dagokionez, langabezia tasarik txikiena 45-54 urte bitarteko taldeari dagokio (%9,7) eta langabezia tasarik altuena, oster, 16-24 urte bitarteko taldeari (%19,4). Hala ere, azken talde hau izan da eboluziorik onena izan duena 600 langabetu gutxiagorekin (-%7,3) aurreko hiruhilekoarekin alderatuta.

Lurralde Historikoei dagokienez, Gipuzkoan izan da langabezia tasarik txikiena (%8,6), jarraian Araba (%12,2) eta Bizkaia (%12,7). Aurreko hiruhilekoarekin alderatuta, langabetu kopuruaren eboluziorik onena Bizkaian izan da, %0,9ko jaitsierarekin. Aitzitik, eboluziorik txarrena Araban izan da, %15,6 igoerarekin langabetuei dagokienez.

Langabeziaren iraupenari dagokionez, langabetuen %40,0k urte bat baino gutxiago darama langabezi egoeran eta %60,0k urte bat baino gehiago darama egoera horretan.

Ikasketa – mailaren arabera, Estatistikako Institutu Nazionalaren - EIN - arabera (Biztanleria Jardueraren Arabera, BJA, sailkatzeko datuak ez daude eskuragarri) langabetuen %40k derrigorrezko ikasketak ditu eta %33k Unibertsitate ikasketak. Aurreko hiruhilekoarekin alderatuta, langabetu kopuruan beherapena izan duen bakarra derrigorrezko ikasketak dituztenen taldea izan da (-%2,3).

Jatorriari dagokionez, EINren datuen arabera (Biztanleria Jardueraren Arabera, BJA, sailkatzeko datuak ez daude eskuragarri), langabetuen %82a bertakoak dira. Jarraian, Europar Batasunetik kanpoko nazionalitatea duten langabetu atzerriarrak (%16) eta Europar Batasunekoak (%2).